# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 4163

AGINDUA, 1994ko urriaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, lanpostuen zerrendak aldatzearen eragina jasan duten maisu-maistrak zeintzuk izango diren finkatzeko prozedura arautzen duena.

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko unibertsitatekoez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. idazpuruko I. atalburuan. Egiteko horretan erabili behar diren oinarrizko irizpideak eta prozedura-bideak adierazten dira bertan.

Lege horretan jasotzen da, halaber, lanpostuen zerrenden eraginez lanpostuaren edukinean izandako aldaketa dela-eta, funtzionariak euren lanpostuetatik higi daitezkeela; lanpostua ezabatu egin delako birratxikipena galtzea ere arrazoi lez jo daiteke higitzeko.

Irakasleen lanpostuei dagozkien hizkuntz eskakiznak eta horien derrigortasun datak Erregeren maiatzaren 9ko 47/1993 Dekretuan zehazten dira. Dekretu horretan finkatzen da, halaber, hizkuntz eskakizunak eta horien derrigortasun datak aldatzerakoan aplikagarria den araubidea.

Hezkuntza sistema eratzen duen Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzak ematen dituzten irakasle kidegoei dagozkien lanpostuak betetzeko diren lekualdaketa lehiaketak, estatu mailakoak alegia, arautzeari buruzko Erregeren abuztuaren 5eko 1774/1994 Dekretuan, behin-betirako zuten lanpostua ezabatu edo aldatu egin zaien maisu-maistrei dagozkien hainbat alderdi arautzen dira.

Lanpostuen zerrendetan izandako aldaketen ondorioz euren lanpostua ezabatu edo aldatu zaielako, edo ikastetxeak xehekatze, bateratze eta biltze egoeren ondorioak jasan dituztelako eragina izan duten irakasle funtzionariak, maisu-maistren kidegoan sartuta daudenak alegia, zeintzuk diren finkatzeko prozedura arautzea eskatzen du araudi honek.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Xedea.

Maisu-maistren kidegokoak izan, euren behin-betiko destinoa ikastetxe batetan euki eta espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data ere finkaturik dituzten karrerako irakasle funtzionariak, hots, eragina jasango dutenak, zeintzuk izango diren jakiteko prozedura arautzea da agindu honen xedea. Eragindakotzat joko dira baldin eta haur hezkuntzako, oinarriz-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 4163

ORDEN de 26 de octubre de 1994, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el procedimiento para determinar los maestros afectados por la modificación de las relaciones de puestos de trabajo.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco regula, en el Capítulo I del Título II, las Relaciones de Puestos de Trabajo, señalando los principios básicos así como los cauces procedimentales que deben observarse en su elaboración.

Igualmente prevé esta Ley tanto la remoción de los funcionarios de sus puestos de trabajo por causas derivadas de una modificación o alteración en el contenido del puesto realizada a través de las Relaciones de Puestos de Trabajo, o previstas en las mismas, como la pérdida de la adscripción por supresión del puesto.

Por su parte el Decreto 47/1993, de 9 de mayo, determina los perfiles lingüísticos y las correspondientes fechas de preceptividad de los puestos de trabajo docentes, fijando el régimen aplicable en los casos de transformación de los perfiles lingüísticos y de las fechas de preceptividad de los mismos.

Así mismo el Real Decreto 1774/1994, de 5 de agosto, por el que se regulan los concursos de traslados de ámbito nacional para la provisión de plazas correspondientes a los Cuerpos docentes que imparten las enseñanzas establecidas en la Ley Orgánica de Ordenación del Sistema Educativo, regula determinados aspectos relativos a los Maestros a quienes se hubiere suprimido o transformado el puesto de trabajo que desempeñaban con carácter definitivo.

Este marco normativo aconseja regular el procedimiento para determinar los funcionarios docentes pertenecientes al cuerpo de maestros afectados por las modificaciones de las relaciones de puestos de trabajo y que vean suprimido o modificado su puesto de trabajo, así como los supuestos de desglose, integración y fusión de Centros Escolares.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

Constituye el objeto de la presente Orden la regulación del procedimiento para determinar los funcionarios de carrera docentes pertenecientes al cuerpo de maestros, y con destino definitivo en un Centro, especialidad, perfil lingüístico y fecha de preceptividad, que resulten afectados cuando por la modificación de las relaciones de puestos de trabajo docentes en Centros

ko hezkuntza orokorreko, lehen irakaskuntzako eta hezkuntza bereziko herri ikastetxeetan izandako lanpostu zerrenden aldaketaren ondorioz, dagokien ikastetxean murriztu egiten bazaizkie euren espezialitateko lanpostuak edo aldatu egiten bazaizkie hizkuntz eskakizuna eta/edo horren derrigortasun data.

Agindu honen bidez arautzen da, halaber, ikastetxeen xehekatzeak, bateratzeak eta bi ikastetxe edo gehiago batzeak eragin dien irakasleen egoera arautzen duen prozedura.

*2. atala.–* Nortzuk sartzen dira.

Maisu-maistren kidegokoak izan eta ikastetxe batetan espezialitate, hizkuntz eskakizun eta derrigortasun dataz behin–betiko destinoa duten maisu-maistren kidegoko karrerako irakasle funtzionarioei daragie agindu honetan esaten denak, baldin eta lanpostuen zerrenda berrian saldo negatiboa gertatzen bada horren aurrekoarekiko; saldo negatibo hori oreka daitekeenean lanpostu hutsekin, salbuespentzat joko da.

Ikastetxean behin-betiko destinoa duten beste maisu–maistra batzuk ere parte hartu ahal izango dute, noizbehinka, agindu honetan zehazten den prozeduran. Aurreko lerroaldian adierazten den egoeraren barne ez dute egon beharko; eta horrela, 4.4 atalean xedatutakoaren arabera, borondatez edo derrigorrez lekualdatutakoaren bat birratxiki ahal izateko.

Lekualdaketa lehiaketaren bidez edo urterako konbokatutako hornitze-sistemaren baten bidez behinbetiko destinoa lor dezaten maisu-maistrek, eta, borondatezko edo derrigorrezko jubilazioa dela-eta edo beste edozer dela-eta, abuztuaren 31rako lanari utzi behar diotenek, agindu honetan araututako prozesuan parte hartu beharrik ez dute izango.

*3. atala.–* Eragin eremua.

Haur hezkuntzako, oinarrizko hezkuntza orokorreko, lehen irakaskuntzako eta hezkuntza bereziko herri ikastetxeetako lanpostuak lanpostuen zerrendan agertuko dira erroldaturik. Lanpostuak onartzeko aurrerantzean har daitezen dekretuek, ihardunean jartzen diren ikastetxeak eta horiek dituzten zernolakoak zehaztuko dituzte aditzera, hezkuntza sistemak duen plangintzaren arabera.

Jakineko espezialitate baten barruan, lanpostuen zerrenda berriak saldo negatiboak sor ditzake aurrekoarekiko bai hizkuntza eskakizunean eta bai derrigortasun datan ere; honako egoera hauek ekarriko dituzte:

– Derrigortasun aldaketak, baldin eta eskakizun beraren barruan beste derrigortasun batzuetan gerta daitezen saldo positiboei egokitzen bazaizkie.

– Hizkuntz eskakizun aldaketak, baldin eta espezialitate bereko beste eskakizun batetan gerta daitezen saldo positiboei egokitzen bazaizkie.

– Ezabatzeak, baldin eta espezialitate bereko beste saldo positibo batzuei ez bazaizkie egokitzen.

Ildo berari ekinez, era askotako egoerak ager daitezke, honako hauek alegia:

– Derrigortasun aldaketak, hizkuntz eskakizun aldaketak eta ezabatzeak. Ezabatze horiek finkatzeko

públicos de Educación Infantil, Educación General Básica, Enseñanza Primaria y Educación Especial, disminuya en su Centro el número de puestos de trabajo correspondientes a su especialidad, o se modifique el perfil lingüístico y/o la fecha de preceptividad de los mismos.

Asimismo es objeto de regulación en la presente Orden el procedimiento que regula la situación de los profesores docentes afectados por desgloses e integraciones o por la fusión de dos o más Centros escolares.

*Artículo 2.–* Ámbito subjetivo.

El contenido de la presente Orden afecta a todos aquellos funcionarios de carrera docentes pertenecientes al cuerpo de Maestros con destino definitivo en Centro en una determinada especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad, en la que se produzca saldo negativo en la nueva Relación de Puestos de Trabajo respecto de la inmediatamente anterior, excepto cuando ese saldo negativo pueda ser compensado con la existencia de puestos de trabajo vacantes.

Excepcionalmente podrán participar en el procedimiento descrito en este Orden otros Maestros con destino definitivo en el Centro, en los que no concurra la circunstancia del párrafo anterior, para posibilitar la readscripción de algún desplazado voluntario o forzoso, conforme a lo dispuesto en el artículo 4.4.

Los Maestros que obtengan otro destino definitivo por concurso de traslados o por cualquiera de los sistemas de provisión que se convoquen cada año, así como los que hayan de cesar el 31 de agosto, bien como consecuencia de jubilación voluntaria o forzosa, o por cualquier otra causa, quedarán excluidos de su participación en el proceso regulado en la presente Orden.

*Artículo 3.–* Ámbito objetivo.

Los puestos de trabajo de los Centros públicos de Educación Infantil, Educación General Básica, Enseñanza Primaria y Educación Especial vendrán catalogados en las Relaciones de Puestos de Trabajo. En función de la planificación del sistema educativo, los sucesivos Decretos por los que se aprueben las Relaciones de Puestos de Trabajo fijarán los que entren en funcionamiento, así como las características de los mismos.

Dentro de una especialidad concreta, la nueva Relación de Puestos de Trabajo respecto de la anterior, puede producir saldos negativos en un perfil lingüístico y fecha de preceptividad concretos, que generarán:

– Cambios de preceptividad, si se corresponden con saldos positivos en otras preceptividades, dentro del mismo perfil.

– Cambios de perfil lingüístico, si se corresponden con saldos positivos en otro perfil de la misma especialidad.

– Supresiones, si no se corresponden con otros saldos positivos dentro de la misma especialidad.

De igual modo, podrán plantearse supuestos mixtos, en los que pueden coincidir al mismo tiempo:

– Cambios de preceptividad, cambios de perfil lingüístico y supresiones. En este supuesto, los maestros

prozesuan sartuta dauden maisu-maistrak izango dira, horrelakoetan, oro har saldo negatiboa duen hizkuntz eskakizunari dagokion eta saldo negatiboa duen espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun datako lanpostuen titularrak.

– Hizkuntz eskakizun batetan izan daitezkeen derrigortasun aldaketak eta ezabatzeak. Ezabatzeak finkatzeko prozesuan sartuta dauden maisu-miastrak izango dira, egoera honi dagokionez, oro har saldo negatiboa duen hizkuntz eskakizunari dagokion eta saldo negatiboa duen espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun datako lanpostuen titularrak.

– Hizkuntz eskakizun aldaketak eta ezabatzeak. Ezabatzeak finkatzeko prozesuan sartuta dauden maisu-miastrak izango dira, egoera honi dagokionez, oro har saldo negatiboa duen hizkuntz eskakizunari dagokion eta saldo negatiboa duen espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun datako lanpostuen titularrak.

– Derrigortasun aldaketak eta hizkuntz eskakizun aldaketak. Hizkuntz eskakizun aldaketak finkatzeko prozesuan sartuta dauden maisu-miastrak izango dira, egoera honi dagokionez, oro har saldo negatiboa duen hizkuntz eskakizunari dagokion eta saldo negatiboa duen espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun datako lanpostuen titularrak.

Lanpostuen zerrendan laguntzazkotzat edo euskarako berariazkotzat jotako lanpostuak, agindu honetan ezarritako prozedurak kontuan izanik, egoera horretakoak izan ez eta espezialitate berorretakoei dagokien taldekoak direnekotzat hartuko dira.

*4. atala.*– Ezabatzeen eragina jasan duten norbanakoak zeintzuk diren jakiteko sistema.

1. Borondatezko lan-uzteak.

3. atalean jasotzen den ezabatzerik balego, ezabatzeon eragina jasan duen egoeraren barruan (espezialitatea, hizkuntz eskakizuna, derrigortasun data) ikastetxean behin-betiko destinoa duten maisu-maistra guztiek eska dezakete, euren kabuz, lan–uztea.

Eragindako maisu-maistren kopuruaren eta ikastetxeko lanpostuen zerrendan jasotzen den espezialitatearen, hizkuntz eskakizunaren eta, beharko balitz, derrigortasun dataren arteko aldearen araberakoa izango da eman daitekeen lan-uzteen gehienezko kopurua.

Espezialitate, hizkuntz eskakizun eta derrigortasun data bakoitzeko lan-uzteen eskegile kopuruak aurreko idazatian adierazitakoa gainditzen duenean, lana utzi izanaren egoera eskuratzeko lehentasuna 5.1 atalean finkatzen diren irizpideek jarriko dute.

Espezialitate, hizkuntz eskakizun eta, beharko balitz, derrigortasun data bakoitzeko lan-uzteen eskegile kopurua bigarren idazatian zehaztutako lan-uzte kopuruaren hainbatekoa edo txikiagoa bada, eskegile guztiak joko dira lan-uzte egoeran daudenekotzat.

2. Derrigorrezko lan-uzteak.

Lan-uztea eskatu dutenen kopurua 4.1 ataleko biga-

implicados en el proceso de determinación de las supresiones, serán los titulares de puestos de trabajo en una especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad con saldo negativo correspondiente al perfil lingüístico que tenga globalmente saldo negativo.

– Cambios de preceptividad de un determinado perfil y supresiones. En este supuesto, los maestros implicados en el proceso de determinación de las supresiones, serán los titulares de puestos de trabajo en una especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad con saldo negativo correspondiente al perfil lingüístico que tenga globalmente saldo negativo.

– Cambios de perfil lingüístico y supresiones. En este supuesto, los maestros implicados en el proceso de determinación de las supresiones, serán los titulares de puestos de trabajo en una especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad con saldo negativo correspondiente al perfil lingüístico que tenga globalmente saldo negativo.

– Cambios de preceptividad y cambios de perfil lingüístico. En este supuesto, los maestros implicados en el proceso de determinación de los cambios de perfil lingüístico, serán los titulares de puestos de trabajo en una especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad con saldo negativo correspondiente al perfil lingüístico que tenga globalmente saldo negativo.

Los puestos caracterizados en la relación de puestos de trabajo como de apoyo o de específicos de euskera, serán considerados a los efectos de los procedimientos establecidos en la presente Orden en el grupo correspondiente a los de su misma especialidad que no tienen esa caracterización.

*Artículo 4.*– Sistema de determinación de las personas afectadas por supresiones.

1. Ceses Voluntarios.

En el supuesto en que existan supresiones de las contempladas en el artículo 3, cualquiera de los -maestros con destino definitivo en el Centro en la especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad afectada por supresiones, podrá solicitar voluntariamente su cese.

El número máximo de ceses que se podrá conceder será igual a la diferencia entre el número de Maestros afectados y el número de puestos de la correspondiente especialidad, perfil lingüístico y, en su caso, fecha de preceptividad que contempla la Relación de Puestos de Trabajo en el Centro.

Cuando el número de solicitantes de cese por cada especialidad, perfil lingüístico y, en su caso fecha de preceptividad, sea superior al definido en el párrafo anterior, la preferencia en la adquisición de la condición de cesado vendrá determinada por los criterios que se fijan en el artículo 5.1.

Cuando el número de solicitantes de cese por cada especialidad, perfil lingüístico y, en su caso fecha de preceptividad, sea igual o inferior al número de ceses definido en el párrafo segundo, todos ellos adquirirán automáticamente la condición de cesados.

2. Ceses forzosos.

En el supuesto de que el número de solicitantes de

rren idazatian zehaztutako kopurua baino txikiagoa bada, espezialitateko behar hainbat maisu-maistrak utzi beharko dute lana halabeharrez, aipatutako kopuru horretara iritsi artean, 5.2. atalean finkatzen diren irizpideen arabera.

3. Lana utzi behar izan dutenak ikastetxeko beste lanpostu batzuetan birratxikitzea.

Aurreko idazatietan jasotako prozesuaren bidez euren ikastetxeetan lana utzi behar izan duten maisu-maistrak lekuz aldatu egingo dira. Beste lanposturen bat balego, berorietara atxikitzeko, besterik litzateke; horretarako behar den habilitazioa izan beharko dute, eta bai egiaztatutako hizkuntz eskakizuna ere, baldin eta derrigortasun data igarota duten lanpostuak badira, baina IGA behin-behineko habilitazioa dutenak salbuetsi egingo dira; azkeneko egoera honetan, berehalako derrigortasun data duten 2HEko lanpostuetan birratxiki daitezke hiru urteko epealdian, lanpostuen zerrenda argitaratzearen ondorioz egiten den lehenengo atxikipenetik kontatzen hasita.

Atxikipenerako lehentasuna 5.1. atalean adierazitako moduan zehaztuko da. Behin-betiko birratxikipenik lortzen ez badute utzi egin beharko dute ikastetxea.

4. Agiango beste birratxikipen batzuk.

Lana utzi behar izan duten maisu-maistrak birratxiki ondoren, batenbat atxikipenik gabe geldituko balitz eta lanpostu hutsak egon, lanpostu horietaz jabetzeko gaitasuna (habilitazioa eta hizkuntz eskakizuna) duten beste espezialitate batzuetako maisu–maistrak euren kabuz birratxikitzeko bidea eskeiniko litzateke, baldin eta eurek libre uzten duten lanpostua, lana utzi behar izan eta birratxikipenik gabe gelditu ziren maisu–maistrak birratxikitzeko erabil badaiteke, horietarako behar-bestean habilitatuta dauden lanpostuetan.

*5. atala.–* Aukeraketa-lehentasunerako irizpideak.

1. Lana euren kabuz uztea edo birratxikitzea eskatzen duten maisu-maistren aukeraketa-lehentasunerako irizpideak.

Espezialitate, hizkuntz eskakizun eta, beharko balitz, derrigortasun data bakoitzean lana uzteko eskatzen duten eskegileen kopuruak 4.1 ataleko bigarren lerroaldian ezarritako gehienezko kopurua gainditu dezanean, lana utzi duenaren egoera eskuratzeko lehentasuna, ikastetxean behin-betiko lez denborarik gehien eramateak ebatziko du.

Beste ikastetxe bat xehekatu delako euren destinoa beste batetan duten maisu-maistrei, aintzinatasun ondorioetarako, jatorrizko ikastetxean egindako denbora hartuko zaie kontutan behin-betikotzat egindako lez. Orain duten destinoaren aurrekoa ezabatu zaien maisu-maistrekin ere modu berean ihardungo da.

Aintzinatasun horretan berdinketarik balego, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionari lez denborarik gehien eramateak ebatziko du; orduan ere ebazteke geldituko balitz, sarrera promoziorik zaharrenak, eta horren barruan, berorretan lortutako zenbakirik txikienak ebatziko du.

2. Derrigorrez lana utzi behar izan duten maisu-maistrak aukeratzeko lehentasun-irizpideak.

cese sea inferior al número definido en el párrafo segundo del artículo 4.1, serán cesados con carácter forzoso tantos Maestros de la especialidad como fuesen necesarios hasta igualar el mencionado número, conforme a los criterios que se fijan en el artículo 5.2.

3. Readscripciones de los cesados en otros puestos de trabajo del Centro.

Los Maestros que hayan adquirido, mediante el proceso previsto en los párrafos anteriores, la condición de cesados en su Centro, serán desplazados del mismo, salvo que exista otro puesto de trabajo al que puedan ser adscritos, para lo que deberán tener la correspondiente habilitación y el perfil lingüístico acreditado si se trata de puestos de trabajo con perfil lingüístico de fecha de preceptividad vencida, salvo que dispongan de la habilitación transitoria IGA, en cuyo caso podrán readscribirse a puestos de PL2 con fecha de preceptividad inmediata durante un período de tres años desde la primera adscripción que se realice como consecuencia de la publicación de las Relaciones de Puestos de Trabajo.

La preferencia para la adscripción vendrá determinada en la forma señalada en el artículo 5.1. Si no obtuvieran la adscripción definitiva, serán desplazados del Centro.

4. Otras posibles readscripciones.

Posteriormente a la readscripción de los maestros cesados, y si quedara alguno sin readscribir y puestos de trabajo vacantes, se posibilitará de forma voluntaria la readscripción de maestros de otras especialidades con capacitación para ocuparlos (habilitación y perfil lingüístico), siempre que el puesto de trabajo que ellos dejen libre pueda ser utilizado para la readscripción, en plazas para las que estén debidamente habilitados, de los Maestros cesados que quedaron previamente sin readscribir.

*Artículo 5.–* Criterios de ordenación

1. Criterios de ordenación de maestros que solicitan ceses voluntarios o readscripción.

Cuando el número de solicitantes de cese por cada especialidad, perfil lingüístico y, en su caso fecha de preceptividad, sea superior al número máximo de ceses establecido en el párrafo segundo del artículo 4.1., la preferencia en la adquisición de la condición de cesado vendrá determinada por la mayor antigüedad como definitivo en el Centro.

A los Maestros que tienen su destino en un Centro por desglose de otro, se les computará en la antigüedad como definitivos en el mismo la referida a su Centro de origen. Igual tratamiento se dará a los maestros cuyo destino inmediatamente anterior les fue suprimido.

En el caso de igualdad en la antigüedad, decidirá el mayor tiempo de servicios como funcionario de carrera del Cuerpo de Maestros y, en último término, la promoción de ingreso más antigua y, dentro de ésta, el número más bajo obtenido en ella.

2. Criterios de ordenación de maestros cesados forzosos.

Lana derrigorrez utzi dutenen egoera hartuko duten maisu–maistrak zeintzuk diren finkatzeko hurrenkera, honako hau izango da:

.– Ikastetxean behin-betiko lez denbora gutxiago eramatea.

.– Berdintasunik balego, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionari lez denbora gutxiago eramatea eta, azken batetan, sarrera promoziorik oraintsukoena; eta azkeneko horren barruan, berorretan lortutako zenbakirik altuena.

*6. atala.–* Borondatez eta derrigorrez lana utzi dutenen egoera.

1.– Euren kabuz zein derrigorrez ikastetxea utzi behar izan duten maisu-maistrak, maisu-maistren kidegoari dagozkion lanpostuak betetzeko alorrean indarrean dauden arauetan xedatutakoaz baliatuko dira.

2.– Ikastetxea utzi behar duten maisu-maistrek lehentasuna izango dute ikastetxe horretan edo eskualdeko beste ikastetxeren batetan ikasturtearen hasierako destino-esleipen prozesuan behin–behineko izendapena eskuratu ahal izateko.

*7. atala.–* Lanpostuaren hizkuntz eskakizunaren aldaketa.

Ikastetxe eta espezialitate jakin batetan hizkuntz eskakizun bateko lanpostu kopurua murrizten bada eta, era berean, beste hizkuntz eskakizun bateko lanpostuen kopurua neurri berean gehitzen bada edo gehiago, beharrezkoa izango da aldaketak eragindako maisu-maistrak nortzuk izango diren finkatzea.

1. Eragina jasan duten maisu-maistren kopurua.

Espezialitate batetan hizkuntz eskakizun batetik beste batera aldatu diren lanpostuak beste.

2. Aldaketaren eragina jasan duten maisu-maistrak zeintzuk diren adieraztea eta beste hizkuntz eskakizun bateko lanpostuetara birratxikitzea.

Saldo negatiboak dituzten derrigortasun datetan euren kopurua murriztu egiten deneko espezialitate eta hizkuntz eskakizunetan behin-betikoak diren maisu-maistra guztiei dagokienez, eta derrigortasun data bakoitzean eragindakoak izan direnak saldo negatiboaren zenbakiaren arabera eta 4. atalean adierazitako irizpideak kontutan izanik zehaztu ondoren, hurrengo lerroaldian aipatzen den tokialdatze hurrenkerari jarraituko zaio, erabateko zenbatekoa lortu arte:

– 2HE egiaztatuta izan eta borondatez eska dezaten maisu–miastrak,
– 2HE derrigorrez egiaztatuta duten maisu-maistrak,
– 1HE egiaztatuta izan eta borondatez eska dezaten maisu–maistrak,
– 1HE derrigorrez egiaztatutako maisu-maistrak,
– HEik egiaztatuta euki ez eta borondatez eska dezaten maisu–maistrak,
– HE derrigorrez egiaztatu gabeko maisu-maistrak.

Talde bakoitzaren barruan 5. atalean ezarritako aukeraketa–lehentasunezko irizpideei jarraituko zaie.

3. Hizkuntz eskakizuna aldatzeak ekar ditzakeen ondorioak.

El orden para la determinación de los profesores que adquirirán la condición de cesados forzosos será el siguiente:

.– Menor antigüedad como definitivo en el centro.

.– En caso de igualdad, el menor tiempo de servicios como funcionario de carrera del cuerpo de maestros y, en último término, la promoción de ingreso más reciente y, dentro de ésta, el número más alto obtenido en ella

*Artículo 6.–* Situación de los cesados voluntarios y forzosos.

1.– Los maestros que resulten desplazados del Centro, tanto con carácter voluntario como forzoso, podrán acogerse a lo dispuesto por la normativa vigente en materia de provisión de puestos de trabajo correspondientes al cuerpo de maestros.

2.– Los Maestros que resulten desplazados del Centro, tendrán preferencia para ser nombrados provisionalmente en el proceso de adjudicación de destinos del comienzo de curso en el Centro del que han sido desplazados o en cualquier otro Centro de la zona.

*Articulo 7.–* Modificación del perfil lingüístico de la plaza.

Cuando en un Centro y especialidad concreta, el número de puestos de trabajo de un perfil lingüístico disminuye y al mismo tiempo aumenta el de puestos de trabajo del otro perfil lingüístico en una cifra igual o superior, será necesario determinar las personas afectadas por el cambio.

1. Número de maestros afectados.

Tantos como número de puestos de una especialidad hayan cambiado de un perfil lingüístico al otro.

2. Determinación de los maestros afectados por el cambio y su readscripción a puestos de trabajo del otro perfil lingüístico.

De todos los Maestros definitivos en la especialidad y perfil lingüístico cuyo número disminuye, en plazos de preceptividad con saldos negativos, y una vez determinados los afectados de cada fecha de preceptividad en función del número del saldo negativo y con los criterios del artículo 4, se seguirá el siguiente orden de desplazamientos hasta llegar a la cifra total:

– maestros con PL2 acreditado que lo soliciten voluntariamente,
– maestros con PL2 acreditado de manera forzosa,
– maestros con PL1 acreditado que lo soliciten voluntariamente,
– maestros con PL1 acreditado de manera forzosa,
– maestros sin PL acreditado que lo soliciten voluntariamente,
– maestros sin PL acreditado de manera forzosa

Dentro de cada grupo se seguirán los criterios de ordenación establecidos en el artículo 5.

3. Efectos en el supuesto de cambio de Perfil lingüístico.

2HEra atxikitako maisu-maistraren batek ez badu egiaztatu 2HE, lanpostuaren derrigortasunean finkatutako denbora izango du egiaztatzeko; derrigortasun hori 3 urtekoa baino txikiagoa balitz, denbora horren araberakoa; eta hori, hizkuntz eskakizunak finkatzeko irizpideak ezartzeari buruzko martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuko gehigarrizko xedapenetatik bigarrenean xedatutakoa kontutan izanik; bestela, ezabatu egin zaiola ulertuko da, horri buruzko aukera egiten badu 9. atalean adierazitako ekintzan.

*8. atala.*– Lanpostuaren derrigortasun dataren aldaketa.

Espezialitate eta hizkuntz eskakizun jakin bateko ikastetxe batetan derrigortasun data duten lanpostuen kopurua murriztu egiten bada eta, aldi berean, gehitu egiten badira neurri berean edo gehiagoan beste derrigortasun dataren bat duten lanpostuak, beharrezkoa izango da aldaketak daragien maisu-maistrak nortzuk diren zehaztea.

1. Eragina jasan duten maisu-maistren kopurua.

Derrigortasun dataz aldatu duten espezialitate-hizkuntz eskakizun bateko lanpostuak beste.

2. Aldaketak eragin dien maisu-maistren kopurua finkatzea eta derrigortasun data aldatuta duten lanpostuetara birratxikitzea.

Behin-betikoak izan eta euren espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data aldaturik duten maisu-maistra guztien artetik, saldo negatiboaren kopuruaren arabera derrigortasun bakoitzean eraginak izan dituztenak zehaztu ondoren eta 4. atalean adierazitako irizpideak kontutan izanik, ondoren adierazten den tokialdatze-hurrenkerari jarraituko zaio erabateko zenbatekora iritsi arte, derrigortasun datan izandako aldaketaren arabera.

. 1HEan, atzeratutako derrigortasun data batetik atzeratutako beste derrigortasun data batera aldatzea:

– euren kabuz eskatzen duten maisu-maistrak, egaiztatuta duten hizkuntz eskakizunaren kaltetan gabe.

. 1HEan, atzeratutako derrigortasun data batetik epemugatutako beste derrigortasun data batera aldatzea:

– 2HE egiaztatuta izan eta euren kabuz eska dezaten maisu–maistrak,
– 1HE egiaztatuta izan eta euren kabuz eska dezaten maisu–maistrak,
– 2HE edo 1HE derrigorrez egiaztatuta duten maisu-maistrak,
– HE egiaztatu gabe euki eta euren kabuz eska dezaten maisu–maistrak, salbuetsitakoak izan ezik.
– HE derrigorrez egiaztatu gabe duten maisu-maistrak, salbuetsitakoak izan ezik.

. 2HEan, atzeratutako derrigortasun data batetik atzeratutako beste derrigortasun data batera aldatzea:

– euren kabuz eska dezaten maisu-maistrak, egiaztaturik duten hizkuntz eskakizunaren kaltetan gabe.

. 2HEan, atzeratutako derrigortasun data batetik atzeratutako beste derrigortasun data batera aldatzea:

– 2HE egiaztaturik izan eta euren kabuz eska dezaten maisu–maistrak,

En el supuesto de que alguno de los maestros adscritos a puestos de trabajo de PL2 no tenga PL2 acreditado, dispondrá del tiempo fijado en la preceptividad de la plaza para acreditarlo, o, si este fuera menor de 3 años, de este tiempo, conforme a lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Decreto 47/1993, de 9 de marzo, por el que se establecen criterios para la determinación de perfiles lingüísticos, o adquirirá la condición de suprimido en el caso de que opte por ello en el acto previsto en el artículo 9.

*Artículo 8.*– Modificación del plazo de preceptividad de la plaza.

Cuando en un Centro y especialidad y perfil lingüístico concretos, el número de puestos de trabajo de una determinada preceptividad disminuye, y al mismo tiempo aumenta el de puestos de trabajo de otra preceptividad en una cifra igual o superior, será necesario determinar las personas afectadas por el cambio.

1. Número de maestros afectados.

Tantos como número de puestos de una especialidad-perfil lingüístico hayan cambiado de preceptividad.

2. Determinación de los maestros afectados por el cambio y su readscripción a puestos de trabajo con preceptividad modificada.

De todos los Maestros definitivos de esa especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad modificado, y una vez determinados los afectados de cada fecha de preceptividad en función del número del saldo negativo y con los criterios del artículo 4, se seguirá el siguiente orden de desplazamientos hasta llegar a la cifra total, en función del tipo de cambio de preceptividad:

. En PL1 cambio de una preceptividad diferida a otra preceptividad diferida:

– maestros que lo soliciten voluntariamente, con independencia del perfil que tengan acreditado.

. En PL1 cambio de una preceptividad diferida a una preceptividad vencida:

– maestros con PL2 acreditado que lo soliciten voluntariamente
– maestros con PL1 acreditado que lo soliciten voluntariamente,
– maestros con PL2 o con PL1 acreditado, de manera forzosa,
– maestros sin PL acreditado que lo soliciten voluntariamente, excepto exentos,
– maestros sin PL acreditado de manera forzosa, excepto exentos,

. En PL2 cambio de una preceptividad diferida a otra preceptividad diferida:

– maestros que lo soliciten voluntariamente, con independencia del perfil que tengan acreditado.

. En PL2 cambio de una preceptividad diferida a preceptividad vencida:

– maestros con PL2 acreditado que lo soliciten voluntariamente,

– 2HE derrigorrez egiaztaturik duten maisu-maistrak,

– 1HE egiaztaturik euki eta euren kabuz eska dezaten maisu–maistrak,

– 1HE derrigorrez egiaztaturik duten maisu-maistrak,

– HE egiaztatu gabe euki eta euren kabuz eska dezaten maisu–maistrak, salbuetsitakoak izan ezik,

– HE derrigorrez egiaztatu gabeko maisu-maistrak, salbuetsitakoak izan ezik.

Talde bakoitzaren barruan 5. atalean ezarritako aukeraketa–hurrenkeraren irizpideak hartuko dira kontutan.

3. Derrigortasun data aldatzeak dakartzan ondorioak.

1HEko lanpostuen derrigortasun data aldatzen bada, horren eragina izan eta 1HE egiztatu gabe duten maisu-maistrek, eskakizun hori egiaztatzeko, lanpostuari dagokion derrigortasun datan finkatutako denbora izango dute; edo hori bost urtekoa baino laburragoa balitz, epealdi hori izango dute; eta hori, hizkuntz eskakizunak finkatzeko irizpideak ezartzeari buruzko martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuko gehigarrizko xedapenetatik bigarrenean xedatutakoari jarraiki. Atzeratutako derrigortasun datatik epemugatutakorako aldaketa denean, epemugatutako lanpostuetara atxikitako maisu-maistrak ez badu egiaztaturik hizkuntz eskakizuna, ezabatu egin zaioneko egoera hartuko du, 9. atalean jasotako ekintzan aukera hori egiten badu. 1HE egiaztatu gabe euki baina «salbuetsiak» egoeraren barne dauden maisu–maistrak badira, ez dute hizkuntz eskakizuna egiaztatu beharrik izango lanpostu horretan dirauten bitartean.

2HEko lanpostuen derrigortasun datan aldaketaren bat gerta dadinean, eraginpekoak izan baina 2HE egiaztatu gabe duten maisu–maistrak direnean, lanpostuaren derrigortasun data lez jarritako epea izango dute egiaztatzeko. Euren derrigortasun data gainditurik duten lanpostuak baldintza honetatik kanpo geldituko dira; orduan, ikastetxetik derrigorrez kanporatutakotzat joko dira.

*9. atala.–* Prozedura

1. Prozeduraren hasiera.

Lekualdaketa lehiaketaren behin-betiko erabakia hartu eta hurrengo ikasturterako begiz jotako lanpostuen zerrenda argitaratu ondoren ekingo zaio prozesuari.

2. Lanpostuen zerrendan izandako aldaketei buruzko argibideak ikastetxeetara bidaltzea.

Hezkuntza administrazioak, eragindako ikastetxeei, ikastetxe horietako lanpostuen zerrendan izandako aldaketen jakinarazpen–zerrenda bidaliko die. Bidaliko die, baita ere, ezabaketen, eskakizun aldaketen, derrigortasun daten aldaketen edo egoera horietariko hainbaten eragina jasan duten ikastetxeko behin-betiko maisu-maistren zerrenda; irakasleok, 5. atalean jasotako irizpideen arabera daude antolaturik hurrenkeran, aitorturik dituzten habilitazioak eta egiaztaturik dituzten hizkuntz eskakizunak adieraziz.

Ikastetxeko behin-betiko irakasle guztien zerrenda

– maestros con PL2 acreditado de manera forzosa,

– maestros con PL1 acreditado que lo soliciten voluntariamente,

– maestros con PL1 acreditado de manera forzosa,

– maestros sin PL acreditado que lo soliciten voluntariamente, excepto exentos,

– maestros sin PL acreditado de manera forzosa, excepto exentos,

Dentro de cada grupo se seguirán los criterios de ordenación establecidos en el artículo 5.

3. Efectos en el supuesto de cambios de preceptividad.

En el supuesto de modificación en la fecha de preceptividad de puestos de trabajo de PL1, los maestros afectados sin PL1 acreditado dispondrán del tiempo fijado en la preceptividad de la plaza para acreditarlo, o si este fuera menor de 5 años, de este tiempo, conforme a lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda del Decreto 47/1993, de 9 de marzo, por el que se establecen criterios para la determinación de perfiles lingüísticos. Cuando se trate de cambios de preceptividad diferida a vencida, si el Maestro adscrito a puestos de trabajo vencidos no tiene el Perfil Lingüístico acreditado, adquirirá la condición de suprimido en el caso que opte por ello en el acto previsto en el Artículo 9. Si se tratara de maestros sin PL1 acreditado pero que tuvieran reconocida la condición de «exentos» no estarán obligados a acreditar el perfil lingüístico mientras permanezcan en esa plaza.

En el supuesto de modificación en la fecha de preceptividad de puestos de trabajo de PL2, los maestros afectados sin PL2 acreditado dispondrán del tiempo fijado en la preceptividad de la plaza para acreditarlo, excepto cuando se trate de puestos de trabajo de preceptividad vencida, en cuyo caso serán desplazados forzosos del Centro.

*Artículo 9.–* Procedimiento

1. Inicio del procedimiento.

El proceso se iniciará tras la resolución definitiva del concurso de traslados y la publicación de la Relación de Puestos de Trabajo prevista para el curso siguiente.

2. Remisión a los Centros de información sobre las modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo.

La Administración educativa remitirá a cada Centro afectado un listado informativo de las variaciones producidas en la Relación de Puestos de Trabajo del mismo, así como otro listado de todos los profesores definitivos del Centro afectados por supresiones, modificaciones de perfil, modificaciones de preceptividad o por varias de las situaciones anteriores, ordenados según los criterios recogidos en el artículo 5, con indicación de las habilitaciones que tienen reconocidas y los perfiles lingüísticos que tienen acreditados.

Asimismo se remitirá a los Centros un listado de

ere bidaliko zaie ikastetxeei, aintzinatasun hurrenkeran antolaturik; aitorturik dituzten habilitazioak eta egiaztaturik dituzten hizkuntz eskakizunak adieraziko dira.

3. Eraginak izan dituzten maisu-maistrei jakinaraztea.

Aurreko idazatian adierazten diren zerrendak eskuratu bezain laister, ikastetxeetako zuzendariek, murrizketaren ondorioz saldo negatiboak dituzten espezialitate, hizkuntz eskakizun eta derrigortasun datetako lanpostuetako maisu-maistra titular guztiei emango diete zerrenda horren berri; eta bai, prozesuan parte hartu nahi izan dezaketen beste espezialitate batzuetakoei ere; guzti hori, 4.4 atalean ezarritakoaren arabera.

Eragina jasan duen lanpostu bateko maisu-maistra titularrek euren zerbitzuak beste lanpostu batetan betetzen dituztenean, bai zerbitzualdian zein zerbitzu berezitan, edo beste edozein arrazoi dela-eta lanpostuz kanpo daudenean, zuzendariak aurreko idazatian adierazitakoaren berri emango die euren bizilekutzat ikastetxean utzi duten helbidean, eta horrela, agindu honetan ezarritako prozesuan parte hartu ahal dezaten.

Jakinarazpena egin eta agiriak entregatzearekin batera aste berorretako egunen baterako egingo zaie deia ikastetxean batzar bat egiteko; zuzendariak parte hartuko du batzar horretan, ikuskatzaile bat bileraburu izango dela.

4. Eragindakoen kopurua finkatzeko bilera eta proposamena.

Lehendabizi, bilera horretan, lanpostu talde bakoitzeko (espezialitatea-hizkuntz eskakizuna-derrigortasun data) saldo negatiboko kopuruaren arabera prozesuetan parte hartu beharko dutenen zerrenda egingo da. Burutu behar diren izapideak burutu ondoren, 5. atalean ezarritako irizpideak kontutan izanik, eragindakoek hartutako aukeren akta egingo da.

Prozesuan parte hartu behar duten maisu-maistrek, parte hartu ez eta ez badute ezelango arrazoirik ematen, borondatezko ukorik ez dutela egin ulertu beharko da; hala ere, derrigorrez alda daitezke tokiz edo birratxikipenaren gai izan daitezke.

5. Espedienteak bidaltzea.

Prozesua amaitu ondoren, 9.4 atalean aipatzen den akta bidaliko dio zuzendariak lurralde ordezkariari; horrekin batera, lan-uzteari eta birratxikipenei buruzko proposamenak ere bidaliko dizkio, agindu honen I. eraskinarekin batera doan ereduarekin bat etorriz.

6. Banakako erabakiak eta argitalpena.

Agiri hauek aztertu ondoren, lurralde ordezkariek, Hezkuntza Administrazioko sailburuordeari bidaliko diote behin-betiko proposamena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako erabaki bidez kaleratuko dela.

Erabaki horren aurka, hori doakienek, ohiko errekurtsoa aurkez diezaiokete, hilabeteko epean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari.

Lurralde ordezkariek, euren aldetik, lan-uztezko edo lanpostu batera birratxikitzezko banakako erabakiak hartuko dituzte; horietan, lehenengo lerroaldian aipatutakoaren edukia agertuko dira.

todos los profesores definitivos del Centro ordenados por antigüedad, con indicación de las habilitaciones que tienen reconocidas y los perfiles lingüísticos que tienen acreditados.

3. Comunicación a los maestros afectados.

Los Directores de los Centros, de forma inmediata a la recepción de los listados del apartado anterior, lo notificarán a todos los maestros titulares de puestos de especialidades-perfiles lingüísticos-fechas de preceptividad con saldos negativos por disminución, así como a los de otras especialidades que pudieran estar interesados en participar en el proceso, conforme a lo establecido en el Artículo 4.4.

En aquellos casos en que los Maestros titulares de un puesto afectado estuvieran prestando servicios en otro, mediante comisión de servicios, servicios especiales, o ausentes por cualquier otro motivo, el Director realizará la notificación referida en el párrafo anterior al domicilio que de los mismos conste en el Centro, al objeto de que puedan participar en el proceso establecido en la presente Orden.

Junto a la notificación y entrega de documentación, serán citados para un día de la misma semana al objeto de realizar una reunión en el Centro, en la que participará el Director y que será presidida por un Inspector.

4. Reunión para determinar los afectados y propuesta.

En esta reunión, se determinarán en primer lugar las personas que han de concurrir a los procesos en función de la cifra del saldo negativo de cada grupo de puestos (especialidad-perfil lingüístico-plazo de preceptividad), y tras la realización de las fases que correspondan, de acuerdo con los criterios establecidos en el artículo 5, se levantará Acta de las opciones realizadas por los afectados.

Cuando los maestros que tienen que participar en el proceso, no lo hagan sin causa justificada, se estimará que no presentan renuncias voluntarias, pero podrán ser objeto de desplazamiento o readscripción forzosos.

5. Remisión de expedientes.

Una vez finalizado el proceso, el Director remitirá al Delegado Territorial el Acta a que se hace referencia en el artículo 9.4., junto con las propuestas de ceses y readscripciones que procedan, conforme al modelo que se adjunta como anexo I al presente Orden.

6. Resoluciones individuales y publicación.

Los Delegados Territoriales, una vez revisada esta documentación, elevarán la propuesta definitiva al Viceconsejero de Administración Educativa, quien procederá a hacerla pública mediante Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta Resolución, los interesados podrán interponer Recurso ordinario, en el plazo de un mes ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación.

Por su parte, los Delegados Territoriales dictarán las oportunas Resoluciones individuales de cese o de adscripción a otro puesto, que reflejarán el contenido de la mencionada en el párrafo primero.

7. Prozesuaren amaiera.

Uztailaren 30a baino lehen amaituko da prozesua.

*10. atala.–* Ondorioak.

Urteko abuztuaren 31tik aurrera izango dituzte ondorioak lan–uzteek eta irailaren 1etik aurrera birratxikipenek.

*11. atala.–* Xehekatzeak eta biltzeak.

Lanpostuen zerrendak aldatu egin direla-eta beharrezkoa izango balitz eskola unitateak xehekatzea eta ondoren bateratzea, agindu honetako laugarren eta hurrengo ataletan jasotako irizpideen arabera egingo dira tokialdaketak.

Ikastetxe berriaren lanpostuen zerrendan sartuko diren lanpostuen kopurua, eta horiei dagokien espezialitatea, hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun data, ikastetxearen hasiera bateko lanpostuen zerrendan xehekatzen diren unitateei dagozkienak dira.

*12. atala.–* Ikastetxeak bateratzea.

1.– Bi ikastetxe edo gehiago batzen direnean, berorietan destinoa duten irakasleak birratxiki egingo dira; horretarako, bilketa horretatik ateratzen den ikastetxeak dituen lanpostuak, bateratutako ikastetxeetan guztira zeuden lanpostuak beste izango dira edo gehiago.

2.– Horri dagokionez, bateraketaren ondorioz sortutako ikastetxe berriari dagozkion lanpostuen zerrenda argitaratu ondoren, maisu-maistrak atxikitzeko prozesua arautzeari buruzko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1993ko maiatzaren 11ko Aginduan ezarritako irizpideei jarraituz, atxiki egingo dira irakasleak.

3.– Ikastetxeko lanpostuen kopurua bateratutako ikastetxeetan zegoena baino murritzagoa bada, kendutako maisu-maistrak izango dira aurreko prozesuaren ondorioz atxiki gabe geldituko direnak.

*13. atala.–* Berariazko lanpostuak.

Lanpostuen zerrendan berariazko lez agertzen diren lanpostuak, agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, bereziak direnekotzat hartuko dira eta ez dira batuko ikastetxean espezialitate berekoak izan eta beste ezaugarri batzuk dituzten beste lanpostu batzuekin.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Langilegoaren Kudeaketa zuzendariari baimena ematen zaio bereak diren eskuduntzen barruan agindu honetan xedatutakoa betetzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1994ko urriak 26.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

7. Fin del proceso.

El proceso deberá estar finalizado antes del 30 de julio.

*Artículo 10.–* Efectos.

Los ceses tendrán efectos de 31 de agosto de cada año y las adscripciones de 1 de setiembre de cada año.

*Artículo 11.–* Desgloses e integraciones.

Cuando por modificación de las Relaciones de Puestos de Trabajo sea necesario proceder al desglose y posterior integración de unidades escolares, el desplazamiento de los maestros se llevará a cabo de acuerdo con los criterios recogidos en los artículos cuarto y siguientes del presente Orden.

El número, así como la especialidad, perfil lingüístico y fecha de preceptividad de las puestos que se integrarán en la Relación de Puestos de Trabajo del nuevo Centro, serán los correspondientes a las unidades que se desglosan en la Relación de Puestos del Centro de origen.

*Artículo 12.–* Fusión de Centros.

1.– En los casos de fusión de dos o más Centros escolares se procederá a la adscripción del profesorado destinado en los mismos, siempre y cuando el número de puestos de trabajo existentes en el Centro resultante sea igual o superior al de la suma de puestos de trabajos existentes en los Centros fusionados.

2.– A tal efecto, con posterioridad a la publicación de la Relación de Puestos de Trabajo correspondiente al nuevo Centro creado como consecuencia de la fusión se procederá a adscribir al profesorado siguiendo los criterios establecidos en la Orden de 11 de mayo de 1993, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula el proceso de adscripción de los Maestros.

3.– Si el número de puestos de trabajo existentes en el Centro resultante es inferior a la suma de las existentes en los Centros fusionados, los Maestros suprimidos serán los que no hayan podido adscribirse como resultado del proceso anterior.

*Artículo 13.–* Puestos de trabajo singulares.

A los efectos de lo dispuesto en esta Orden los puestos que aparezcan configurados en la Relación de Puestos de Trabajo como singulares, serán considerados como grupo específico, no agrupándose con el resto de puestos de la misma especialidad en el Centro, que no tengan esa característica.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza al Director de Gestión de Personal para que, en el ámbito de sus competencias, dicte las disposiciones necesarias para la ejecución y desarrollo de lo dispuesto en este Orden.

*Segunda.–* La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de octubre de 1994.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.